

NAFARROAko Mahai sektoriala

Lanpostuak esleitzeko araudi berria (I)

Murrizketak, betetzeko zailak diren lanpostuetan

Lanpostuak esleitzeari buruzko Foru Dekretuaren aldaketa erabili du Hezkuntza Departamentuak, betetzeko zailak diren lanpostuak nabarmen murrizteko. 2023-24 ikasturtetik aurrera, horrelako **lanpostu berriak** aterako dira bakarrik Aurizberri, Auritz, Erro, Erronkari, Garralda, Luzaide, Otsagabia, Urdazubi-Zugarramurdi eta Zudairiko ikastetxeetan, Bigarren Hezkuntzako irakasleentzat Arantzan, Betelun eta Goizuetan, eta 5 gela baino gutxiago duten ikastetxeetan.

2023-24 ikasturtetik aurrera ez dira betetzeko zailak diren lanpostu berriak esleituko Oinarrizko Lanbide Heziketan, 5 gela baino gehiagoko landa eremuko eskoletan eta "eremu ez-euskalduneko" deituriko D ereduetan. Horrelako lanpostu batean dauden irakasleak mantenduko dira orain arteko baldintzetan, baina **lanpostu berririk ez da sortuko**. Hortaz, azken hiru kasuetan betetzeko zailak diren lanpostuak denborarekin desagertuko dira.

Desagertu eginen dira betetzeko zailak diren lanpostuak, aurreko legegintzaldian sortuak, oraingo Hezkuntza Departamentuak ez baititu inoiz begi onez ikusi. Aitzakia gisa aipatu dute egonkortze legea bete behar dutela, baina hori egia izanez gero, galarazi eginen luke delako aukera ikastetxe guztietan eta ez soilik orain ezabatuko dituenetan. Bestalde, diote ezin dutela konpromisorik hartu horrelako lanpostu asko ezartzeko, egonkortze prozesuan irakasle "asko" funtzionarizatuko direlako eta betetzeko zailak diren lanpostuetan egonkortutako irakasleak lan zamarik gabe geldi daitezkeelako. Denok dakigu egonkortze prozesua bukatu ondoren, behin-behinekotasunak oso goian jarraituko duela eta, gainera, erlijio irakasleenak direla zama lektibo nahikorik gabe eskainitako lanpostuak.

Oso deigarria da Hezkuntza Departamentuaren interesa PAIko lanpostuak finkatzeko eta, aldiz, betetzeko zailak diren lanpostuak desegonkortzeko. Gauza guztien gaintik, plantilla ordezkatu nahi dute, eta prest eduki bestelako murrizketak aurrera eramateko.